



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2022ko MAIATZA - 233. zenbakia

Ekainaren 18an izango da Euskal Herriko Eskolartekoa lurretan

Sarrerak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. **Lurraldeetako Eskolarteko saioetan sailkatutakoak ariko dira kantuan; parte-hartzaile zerrenda zehazteke dago oraindik.**

Udaberriko ohiko hitzordura itzulita, ekainean izango da aurten Euskal Herriko Eskolartekoa. 14 eta 18 urte bitarteko Euskal Herri osoko bertsolari gazteak elkartuko ditu 34. edizio honek ere. Ekainaren 18an izango da zehazki, lurretan. Ordurako Eskolartekoak bere bidea egingo izango du lurraldeetan; izan ere, horietan sailkatutako gazteek hartzen dute parte jai giroan egiten den Euskal Herri mailako azken saio horretan.

Gipuzkoako Eskolartekoa izan zen egiten lehena: zenbait kanporaketa saioen ondotik, June Aiestaranek jantzi zuen txapela finalean, eta Jon Mendiluze izan zen txapeldunorde. Pasa berri den asteburuan egin ziren Arabako Eskolartekoa eta Nafarroakoa: Maddi

Agirre eta Danel Herrarte arabarrak eta Nafarroako Beñat Astiz eta Eki Mateorena sailkatu ziren lurretako hitzordurako.

Bizkaiko Eskolartekoaren finala larunbatean egingo da, Larrabetzun; egun osoko festa antolatu da, Taldekakoaren finala ere han egingo baita. Eta ekainaren 4an, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoari dagokion Eskolartekoaren finala egingo da Itsasun. Horiek amaitutakoan ezagutuko dugu Euskal Herriko Eskolarteko saiorako parte-hartzaileen izen zerrenda osoa.

11:30ean hasiko da Euskal Herriko Eskolartekoa lurretako frontoian, eta saioa amaitutakoan mokadua eskainiko

da bertan. Sarrerak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatzen dugu gazteen bat-bateko bertsolari txapelketa; aurten lurretako Udalaren laguntza ere izan du Euskal Herriko Eskolarteko saioak. Bertsozaletzea eta gazteei jendaurrean kantuan hasteko aukera ematea du helburu egitasmoak. Bat-bateko txapelketa honetaz gain, lurralde bakoitzean bestelako ekintzak ere egiten dira Eskolartekoari lotuta: idatzizko txapelketa edota adin txikiagokoentzako lehiarik gabeko topaketak.



ANE LABAKA MAYOZ
2022-05-14, Irurtzun
II. Aixita Sariketa:
Txapeldunaren agurra



Doinua: Oso polita zara izatez

Zenbat itzuli emango ditu mundu zahar honen ertzak parte-hartzea moda kontua bada emakumeentzat. Guk umetatik hartu genuen bertsolaritza etxetat eta kolore gorri morea du gure autodefentsak. Gaur argi nuen norentzat izan behar zuen txapel beltzak behartu gabe ere gurekin gogoratzen direnentzat. (bis)

Urrian egin zen iaz Euskal Herriko Eskolartekoa, Abadiñon. //XDZ

Araian eta Izarran zehaztuko da Arabako Bertsolari Txapelketako finala

Asteburu honetan jokatuko dira bi finalurrekoak eta ekainaren 11n finala.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke.

Azken txanpan dago 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketa. Apirilaren 1ean hasita eta final zortzirenak eta laurdenak eginda, finalurrekoen atarian dago. Larunbatean eta igandean izango dira finaleko seikotea zehaztuko duten bi saioak.

Andere Arriolabengoa Bengoa, Asier Otamendi Alkorta, Felipe Zelaia Txurruka, Maddi Agirre Epelde, Oihane Perea Perez de Mendiola eta Unai Anda Delika ariko dira lehen finalurrekoan. Araian izango da larunbatean, 17:30etik aurrera, Andra Mari aretoan.

Iñaki Viñaspre Simon, Manex Agirre Arriolabengoa, Paula Amilburu Izargarai, Peru Abarrategi Sarrionaindia, Rikardo Gonzalez de Durana Alzola eta Xabi Igoa Eriz ariko dira, aldiz, igandean. Izarrako kultur etxean izango da bigarren finalurreko hau, 17:30ean hasita.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke. Txapelketari lotutako informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian daukazu.

Finala ekainaren 11n

Finalurrekoak eginda eta faseen arteko atseden asteburua igarota, ekainaren 11n izango da Arabako Bertsolari Txapelketako finala Gasteizko Maria de Maeztu entzunaretoan, Europa Biltzar Jauregian. 17:30ean hasiko da saio hau ere, eta sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude.

2022ko Arabako Bertsolari Txapelketa nor izango den jakiteaz gain, Bertsolari Txapelketa Nagusirako sailkapena lortuko duten bi bertsolari arabarrak nortzuk diren ere jakingo dugu.



Aramaion jokatu zen azken final laurdena.//XDZ

Ekainaren 4an ezagutuko dugu 2022ko *Señora*

Aurretik egin diren bi saioetatik sailkatutako bertsolariez gain, ohorezko bi "señorek" hartuko dute parte Leitzan jokatuko den finalean.



Amaia Agirrek jantzi zuen pamela 2021eko Señora Sariketako antolatzaileen aburuz.//XDZ

Señora Sariketako antolatzaileen aburuz, "emakume indartsu bat da señora bat, ahaldunduta dagoena", eta hori islatzen ari da oholtzan bigarren aldiz Señora Sariketa. Iaz Amaia Agirre bertsolariak jantzi zuen pamela, eta ikusi beharko da nor den 2022ko Señora: bi kanporaketa saioak jokatu dira dagoeneko, eta ekainaren 4an izango da finala Leitzako Herri Aretoan, 17:00etatik aurrera. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke.

Aner Euzkitze eta Amaia Iturriotz Etxaniz sailkatu ziren Hendaia kanporaketan, eta Ane Labaka Mayoz eta Sarai Robles Vitas Laudioko saioan. Lau bertsolari horiek eta finalera gonbidatutako bi "señorek" hartuko dute parte finalean; aurretik iragarriko dira "ohorezko" beste bi parte-hartzaile horiek nortzuk diren.

Bertso plaza berriak sortu eta emakumeei zein azpiratutako identitateei ikusgarritasuna emateko asmoa du ekimenak, ahalduntze kolektiboaren bidetik. Hainbat bertsolari eta bertsozale feministak jarri zuten abian iaz lehen aldiz, tokiko herri eragileekin eta mugimendu feministekin elkarlanean. Bertsozale Elkartea ekimenaren laguntzailea da.



1a 300 bertso jaialdi ikasturtea agurtzeko

Ikasgelan, bertso-eskolan nahiz beste zenbait ekimenetan gozatu dute bertsoaz Euskal Herri osoko hainbat gaztek. Orain udari begira daude asko; uztailean egingo dira Bertso Udalekuetako bost txandak.

Ikasturte osoan jasotakoa eta egindakoa bertsoz ekartzeko garaia iritsi zaie lehen hezkuntzako gaztetxoei. *Bertsolaritza ikastetxean* programan dauden hainbat ikasgelaren eskutik, 288 bertso jaialdi egingo dira ikasturtea agurtzeko; gehienak Gipuzkoan. Ikasleek eskolan bertan, herri mailan zein eskualdeka elkartuta emanaldiak eskainiko dituzte jendaurrean. Oholtzan aukera izango dute aurrez prestatutako ikuskizuna eskaintzeko eta baita bat-batean egitekoa ere. Zenbaitetan bertsolari gonbidatuak izango dira, eta musikariak ere bai.

Ikastetxeetako jaialdiez gain, beste hainbat saio berezi ere egiten dira ikasturte amaieran bertso-eskoletan, oholtzara igo eta adinkideen aurrean kantuan aritzeko. Hamaika topaketa egiten dira bertso-eskolen artean, bereziki, Araban eta Nafarroan.

Bestelako ekimen batzuen bidez ere, bertsolari gazteek izan dute oholtzara igotzeko aukera ikasturte osoan zehar: esate baterako, Bizkaiko Plazara! edota Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan egiten den Haizea Dator ekimenen bidez.

Material berria irailean

Agurtzera goazen 2021-2022 ikasturtean, 7 lurraldeetako 511 ikastetxetan eskaini dugu bertsolarietza proiektua Bertsozale

Elkartetik: 29.972 ikaslek landu dute bertsoa Bertsozale Elkarteko 50 irakasleren eskutik.

Ikasmaterial berria ere izan dugu geletan: *Zozoak beleari... koplak bi!*. Sekuentzia didaktiko berriak jarri ditugu eskura www.bertsoikasgela.eus atarian, bertso saio musikatuarekin, azalpen dinamikoekin, pantailarako jolasekin... Gainera, karta jolasak eta ikasliburuak ere sortu ditugu. Bertsolaritza irakasleek eurek sortzen duten ikasmateriala, eta bertsolariak ere eskatzen dizkiegu kolaborazioak, gelan landuko diren eduki didaktikoen inguruan haurrei zuzendutako bertso sortak jar ditzaten.

Irailean hasiko dugun ikasturte berrirako, bertsolarietza bigarren urtez lantzen ari diren gelei zuzendutako materiala prest izango dugu; *Zozoak beleari... koplak bi!* materialaren bigarren zatia, alegia.

Eta laster... Bertso Udalekuak!

Irailean material berria estreinakoz erabili aurretik, ordea, aisirako sasoia dator; eta horretarako aparteko magia dute Bertso Udalekuek. Pasa berri den asteburuan egin zuten Bertso Udalekuetako hezitzaileek udan egingo duten lanerako prestaketa saioa. Uztailean bat egingo dute parte-hartzaile gaztetxoekin Amaiurren, Irañetan, Larraulen eta Zuhatzan egingo diren txandetan.



Jaialdiak hezkuntza arautuan nahiz topaketak bertso-eskoletan, hainbat jarduerak egingo dira maiatzetan eta ekainean ikasturtea agurtzeko. //XDZ



Puntu jarrita

BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA

Galdera bera irakurtzeak ia kezkatu nau, Idoia! Nola ez gara ba elkartuko? Bestela ere sarri elkartzen gara, honetarako ere elkartuko gara, noski!

Zure antzera, ni ere bertsoan ibiltzen nintzen, gai-jartzaile baino lehen. Pauso bat atzera eman zenuela aipatzen zenuen, Idoia. Txapelketan izena ez emateko erabakiaz ari zinen. Baina gai-jartzaile taldean eman zenuen izena, hiru txapelketatan lan ikaragarria egin duzu, eta txapelketatik harago ere plazan ari zara, gogotsu eta arduraz. Ederra "atzera-pausoa"...

Esan bezala, txikitatik ibili izan naiz bertsoan. Neure mailan, baina plazaz plaza ibili izan nintzen, sasoiaren arabera, gehiago edo gutxiago. Eta, noski, txapelketan ere bai. Niretzako pauso natural bat izan zen txapelketan parte hartzea; bertso- eskolan hasitako ibilbidean beste mugarri bat. Gaurko ikuspegitik, inertziazko pauso bat, agian.

Garai hartan, nire jardunagatik ardurarik handiena (bakarra ez esatearren) txapelketari begirakoa zen. Txapelketan ahalik eta ondoen kantatzeko prestatzen nuen nire burua. Edo saiatzen nintzen behintzat. Bertso- eskolan ere, txapelketa hurbildu ahala elkartzen ginen sarriago. Gainontzeko plazetan ondo egin edo ez, horren ondorio moduan bizi nuen.

Bertsoan nenbilela, gai-jartzaile ere hasi nintzen, inguruko plazetan, batez ere. Hau ere inertziazko joera horren baitan kokatzen nuen. Batzuetan tokatzen zen, eta egin egiten nuen. Konturatu nintzen arte erosoago ibiltzen nintzela kantuan baino.

Eta, noski, gai-jartzaile aritzeko hautua eginda, txapelketako gai-jartzaile taldean hasi nintzen.

Nik ere mundu bat deskubritu dut hemen, eta asko ikasi. Hala ere, lehengo sentsazio berarekin nago oraintxe: txapelketara begirako prestakuntza itzela da. Gai bakoitza, saio bakoitza eta, finean, txapelketa osoa prestatzeko prozesua benetan aberasgarria da. Plazako saioetarako, ostera, bakarlanean aritzen gara. Honi ere oso positibo deritzot; bertsolarien sorkuntza lana errazteko, norbere sormenetik lantzea eta garatzea ezinbestekoa da. Baina, nik neuk, eskertuko nuke plazan gaiak jartzeko lanari buruz ere hitz egitea. Ideiak elkarbanatu, eztabaidatu, adostu...

Txapelketatik harago ere badago eta bizia... Ezta, Etxahun?

Koplak

Bardo Eguna ospatuko da larunbatean

Nafarroan antolatzen den Bardoak taldekako txapelketak beste itxura bat izango du aurtengoan: egun bakarrera ekarriko da festa giroan egin ohi den txapelketa. Goizean hasita, egun osoko egitaraua prestatuta dago, ginkanaz, hiru kanporaketa saioz, afariz eta finalaz osatuta. Informazio gehiago dago www.bertsozale.eus atarian.

Poto-Finixa



Plaza biziberritzen proiektuaren alde egiten lagunduko diguzu?

Mugaz gaindiko proiektuak bultzatzeko helburuz eskaini dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak *Ideiak2022* aurrekontu parte-hartzailea. Gipuzkoan, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan gauzatzeko sei bertso saiotako proiektua aurkeztu du Bertsozale Elkarteak. Ekainaren 17ra arte proiektuak bozkatzeko aukera dute lurraldeotako herritarrek, eta boto gehiago lortzen dituen proiektua gauzatu da. Botoa emateko aukera: <https://gipuzkoa64.eu> webgunean, eta bertsozale.eus ataritik ere topatuko duzu sarbide zuzena.



PUBLIZITATEA